

Politika orokorrari buruzko eztabaida  
GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAREN ADIERAZPENA BATZAR NAGUSIETAN

**Markel Olano Arrese**

Donostia, 2010eko urriaren 4a



**Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa**

**POLITIKA OROKORREKO EZTABAIDA**  
**GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAREN HITZALDIA**  
**Markel Olano Arrese**  
**Donostia, 2010eko urriaren 4a**

## **1.SARRERA**

Batzar Nagusietako lehendakari andrea, diputatu jaun-andreak, batzarkide jaun-andreak eta osoko bilkura honetara gerturatu zareten guztioi egun on eta mila esker zuen partehartzeagatik.

Politika orokorreko eztabaida hau izango da legealdi honetan burutuko den azkena. Legealdia ez da amaitu ordea. Ikasturte oso bat falta da: proiektu askoren garapena dugu eskuartean eta gure lanak etenik ez du; eta ez du izango legealdia amaitu arte.

Halere, ezinbestekoa da eztabaida honetan, azken urteari begirada emateaz gain, gaurdaino eginiko ibilbidearen balantze sakon bat egitea.

Nire hitzaldia lau zati nagusitan banatuko dut:

- Lehenik eta behin legealdi osoan zehar Gipuzkoan Foru Aldundiak bultzatu duen kultura politiko berriaz eta bultzatu nahi izan dugun gobernantza sistemaz arituko naiz. Uste dut iritsi dela balorazio bat egiteko ordua. Eginikoa aztertu, baloratu eta etorkizunera begira erronka berriak ezarri behar dira.
- Bigarrenik, egoera ekonomikoaz arituko naiz; bizi dugun krisi ekonomikoak gurean izan duen eraginaz eta Gipuzkoako Foru Aldundia alor honetan egiten ari den lanaz.
- Hirugarrenik, Gipuzkoako Kudeaketa Planari errebaso bat egingo diogu garatu diren lanik garrantzitsuenetan erreparatuz.
- Azkenik, egoera politikoaren azterketa egingo dut eta Aldundiak egoera honen aurrean duen jarrera agertu.

## **2. KULTURA POLITIKO BERRIA GIPUZKOAN**

Legealdi hasieran Foru Aldunditik kultura politiko berri baten aldeko aldarria egin genuen:

- Urte luzeetako zatiketa politikoak elkarlan espazioak asko ahuldu dituelako,

- Herrigintzaren konplexutasunak herri politiken lankidetzaren sistemak zabaldu eta sendotzea eskatzen duelako eta,
- Herri arduradun eta herritarren arteko distantzia handiegia delako, distantzia horrek herrigintza ahuldu egiten duelarik.

Azterketa honek lan egiteko modu berri bat aldarrikatzera eraman gintuen: erakunde publikoen arteko lidergo partekatua, lankidetzaren publiko-pribatua eta herritarren partaidetza.

Hitz batean laburbildu daiteke aipaturiko ikuspegi hori: lankidetzaren talde lana, partekatzea. Zaila da inork oinarri horiek baztertu ditzakeela pentsatzea; praktikara eramatea, ordea, beste kontu bat da.

Ziur nago lankidetzarako gaitasuna duten pertsonak, lurraldeek eta herriek beren etorkizuna irabazteko aukera handiagoa dutela.

Sarritan, kultura politiko berria marketing estrategia bat besterik ez dela kritikatu izan du alderdiren batek: hitzak bai baina ekintza gutxi. Ez dut uste, gure kasuan, ikuspegi hori zuzena denik; besteak beste, kultura politiko berri hau ekimen ugarietan gauzatzeko gaitasuna erakutsi dugulako. Zalantzarik gabe, ekimen horiek hobetu daitezke; baina eztabaida hobekuntza horietan zentratzeko garaia iritsi da beste eztabaida batzuk alde batera utziz.

Kultura politiko berriaren hiru ardatzek osatu dute gobernantza sistema. Gobernantza sistema hori izan da gure herri politika guztien oinarrian kokatu dugun eredu. Legealdi hasieran, gure politika egiteko ikuspegia, helburu estrategiko nagusiak eta aurrera eraman behar genituen ekintzak biltzen zituen kudeaketa plan bat egin genuen. Kudeaketa plan hori izan da gure tresna nagusia.

Hitzaldian zehar izango dugu aukera kudeaketa plan horren edukiez hitz egiteko, baina kudeaketa planaz, tresna moduan, zerbait esan nahi nuke. Kudeaketa planak koherentzia eman die gure politikei, marko estrategiko bat ezarri dugu epe motz eta ertainera eta lana egiteko beste eredu bat ezarri nahi izan dugu: bai barnera begira eta, baita, kanpora begira ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ahalegin berezi bat egin du erakundearen arteko lidergo partekatua bultzatzeko; erakundearen arteko lankidetzaren sakontzeko. Gaur Aldundia udalerrietatik gertu dagoen erakunde bat da; Gipuzkoako udalek dituzten arazoak gertutik ezagutzen ditugu (Gipuzkoako herri gehienak bisitatu ditut dagoeneko) eta harremanak eraginkorrak dira. EUDELEkin ere lankidetzaren estuan aritu gara azken urtean eta legealdi osoan.

Eusko Jaurlaritzak berria osatu zenean, gure lankidetzak eskaini genion; nahiz eta gaur egun Eusko Jaurlaritzak ordezkatzeko duen proiektu politikoak guk ordezkatzeko dugunarekin bateraezintasun handiak izan, konbentziturik gaude elkarlana sustatzea herritarren mesederako dela.

Harreman horretan bi gai azpimarratuko nituzke. Krisi ekonomikoa eta terrorismoaren biktimak.

Bi gai horietan, kritika politikoaren tresna alde batera utzi nahi izan dugu, eta ez gara, batzuk saiatu diren arren, eztabaida antzuetan sartu. Lankidetzak hori, ez da edozein kasutan, iraganeko zerbait; une honetan era eraginkorrean burutzen ari da, eta ziur nago etorkizunean ere horrela izango dela.

Bi hitz egin nahi nituzke GIPUZKOA AURRERAREN inguruan; alde batetik une honetan egiten ari garen lanari errebaso azkar bat emateko; eta bestaldetik, hausnarketa bat egin nahi nuke lankidetzak publiko pribatu eredu honen etorkizunaz.

GIPUZKOA AURRERAKO lan taldeak eginkizun garrantzizkoa burutzen ari dira:

Lehenengo taldeak Gipuzkoaren lehiakortasuna bultzatzea du helburu nagusia. Bere lan ibilbidean egun bizi dugun krisi ekonomikoaren inguruan hausnarketa sakona egin du, eta etorkizunari begira Gipuzkoak dituen erronkak finkatu ditu.

Enpresari babes estrategikoa eskaintzeko zerbitzua martxan jarri da. Gipuzkoako Foru Aldundiak krisiaren kontrako egitasmoaren barruan proiektu horietatik 24 bultzatu ditu. Proiektu horiek estrategikotzat baloratuak izan dira GIPUZKOA AURRERA osatzen duten erakundeen artean. Bulego horrek lurraldean egon daitezkeen enpresa ekimenak bultzatzen jarraituko du.

Gipuzkoaren lehiakortasuna eta garapena bultzatzea ez da soilik lurraldeko azpiegiturak edo berrikuntza teknologikoa bultzatzea. Hori beharrezkoa da noski. Baina Gipuzkoak duen altxorrik garrantzitsuena pertsonak dira; pertsonen balioetan eta jokabidean dago balio erantsia.

Duela gutxi, Foru Aldundian izan dugu Robert Putnam estatubatuar soziologo ezaguna; bere hitzetan, gizarte kapital handia duten herrialdeen lehiakortasuna eta garapena handiagoa, eraginkorragoa eta demokratikagoa da.

Gipuzkoak aurrera egin badu pertsoneri esker izan da; ekintzailetasuna, talde lana, gizarte ardura gure lan kulturaren ezaugarriak izan dira eta dira oraindik; balio horiei bizkar emanda, etorkizuna oso iluna izango dugu.

Azken urte hauetan, mendebaldean elkartezko balioen beherapen nabarmena gertatu da; eta beherapen horrek edozein herri edo lurralderen lehiakortasun mailari kalte egiten dio.

Oraindik bide luzea egiteko geratzen den arren, GIPIIZKOA AURRERAREN eskutik aurrerapauso garrantzitsuak eman dira alor honetan: Gipuzkoa Sarean eta Pertsonetikiko Konpromisoa programak dira adibiderik esanguratsuenak.

Abian da, baita ere, lehiakortasuna bultzatzeko Gipuzkoako Gizarte Berrikuntzako zentro berriaren diseinua London School of Economics eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik. Zentro berri horren helburua da Gipuzkoako enpresetan giza alorrean hobekuntzak garatzeko proiektuak burutzea. Datorren urtean, zentro hori martxan izango da.

Azpimarragarria da, baita ere, GIPIIZKOA AURRERAKO bigarren lan taldeak egin duen lana. Lurraldeko proiektu estrategikoak bultzatu ditu. Pasaialdearen biziberritzearen *Masterplana* burutzen ari da. *Masterplana* martxan jartzea bezain garrantzitsua izan da prozesu horretan lortu den erakundeen arteko elkarlana.

GIPIIZKOA AURRERAK proiektu konkretuak jarri ditu martxan: Living Lab-a (Madrilgo gobernu finantzatzen ari dena); Gipuzkoako sistema bio-sanitarioaren antolaketa, Gipuzkoako Garraio sistema hobetzeko proiektuak, sare elektriko intelijentea, eta abar.

GIPIIZKOA AURRERAK aldaketa kualitatibo garrantzitsua ekarri du gure lurraldearen gobernantza sistemara. Zergatik? Lurraldeko gai estrategikoen norabidean lankidetzara esparru sakonago bat sortu duelako, erakundeen ohiko harremanetatik haratago doana.

Lankidetzara horren edukiak ez daude kontrol demokratikorik gabe. Alderantziz, erakunde publikoen legitimitate esparrua zabaldu eta indartu egiten dute; ez bakarrik lantalde hori osatzen duten erakundeen bitartez; lurraldeko unibertsitateekin ere lankidetzara sare interesgarri eta iraunkor bat sortu da.

GIPIIZKOA AURRERAREN inguruan egon diren eztabaida politikoak alde batera utzi eta lurralde bezala ditugun erronketan zentratu behar dugu.

Iritsi da beste pausu bat emateko garaia. GIPUZKOA AURRERAREN erakundetzean sakondu behar dugu. Datorren ikasturtean bere nortasun juridiko propioa izango du, bere egitura, bere kudeaketa egitasmoa eta bere finantzaketa. Baita bere, espazio fisikoa izango du Gipuzkoako Foru Aldunditik kanpo. Horrekin batera, nire ustez, lurralde bezala ditugun estrategiak zehaztu, landu eta bultzatzeko gune elkartua behar du izan. Zehaztapen lan horretan ari gara, une honetan, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan. Legealdia amaitzerako prozesu hori garatua eta amaitua geldituko da.

Legealdi honetan, hain zuzen ere, herritarrenganako hurbiltasun eta komunikazio estuago bat lantzen saiatu gara buru-belarri. Izan ere, arazo politikoak oso urruti bizi dituzte gaur egun herritarrek: horra mendebaldeko demokraziaren arazo larrienetako bat.

% 79,5. Hori da zifra. Gipuzkoako Foru Aldundiak kultura politikoari buruz egindako inkesta batean, erantzuleen % 79,5ek esan zuten ez zutela konfiantzarik politikarekiko. Beraz, behar-beharrezkoa da erakundeen eta herritarren arteko harremana birpentsatzea.

Foru gobernuko taldean legealdi osoan zehar izan dugu kezka hau. Seguru asko, ez genion behar besteko erantzuna emango. Baina gogotik ari gara ahalegintzen egoera iraultzeko, hiru norabidetan hain zuzen ere:

Alde batetik, Gipuzkoako kultura politikoari buruzko eztabaida sendo bat sortu dugu. Hainbat azterlan eta jardunaldi egin eta antolatu ditugu horretarako. Jardunaldiotan era askotako pertsonak hartu dute parte, eta bereziki azpimarratu nahi ditut gazte jendearekin izan ditugun topaketak. Bide batez esanda, nabarmendu nahi dut, baita ere, kultura politikoari buruzko azterketa horien inguruan elkarlanean aritu garela batzarkide talde guztiekin. Horrek aukera eman digu analisiak eta eztabaidak testuinguru politiko zehatzak gaindituz bideratzeko, unean uneko baldintzamendutik haratago jokatzeko.

Bestalde, bi proiektu garrantzitsu jarri ditu abian Aldundiak, herritarrekiko harremana sendotzeko: GIPUZKOA FORU ALDUNDIA ZURE HERRIAN eta GIPUZKOA ERAIKITZEN egitasmoak, alegia. ZURE HERRIAN egitasmoaren bitartez aukera izaten ari gara hainbat eta hainbat herritarrekin egoteko; herrietan, gizarte bizitzan eta elkarteetan parte hartzen duten pertsonak izaten dira; berekin elkartuta, Aldundia egiten ari den lana azaltzen diegu eta, batez ere, beren galderak eta iradokizunak entzuteko aukera izaten dugu.

Benetan esaten dizuet: esperientzia ezin aberasgarriagoa suertatzen da.

GIPUZKOA ERAIKITZEN egitasmoak ere lan-ildo horri eusten dio. Foru gobernuko diputatu guzti-guztiak bilerak egiten ari dira herritarrekin, Aldundiaren kudeaketa planaren berri emanez. Prozesu hau irailean hasi zen eta, gaur artean, 17 lan-saio egin ditugu.

Herritarren partaidetzarako Foru Aldundiak abian jarri dituen prozesuek oinarri sendo-sendoa eman digute. Jarraipena eman diogu "Ikasi parte hartzen" formazio programari; une hauetan martxan dugu KUDEATUZ egitasmoaren hirugarren edizioa: beste 10 udalerrri atxiki dira programara eta, guztira, dagoeneko 30 dira programan elkarlanean aritu direnak.

Jarduera akademiko garrantzitsu batez gainera, 2010. urtean zehar bi esperientzia pilotu egin ditugu herritarren partaidetza sustatzeko: Azkoitia-Urretxu errepidearen trazatua definitzekoa eta haur eta nerabeak babesteko sistema bat proposatzekoa.

Lan-ildo hori gogotsu jorratu izanak, aukera eman digu legealdiaren hasieran agertu genuen konpromiso bat betetzeko: Herritarren partaidetza sustatzeko foru araua, dagoeneko Batzar Nagusi hauek onartu dutena.

Onartu dugun Foru Arau honek ahalbidetzen digu herritarren partaidetzarako prozesu eraginkorrak egituratzea.

Herritarren partaidetzako prozesuak ez dira perfektuak: badakigu. Definizioz ez dira perfektuak. Baina ibilbide argi bati ekin diogu eta, Aldundiaren norabide politikoa edozein dela ere, dagoeneko geldieztina da. Gauza bat nabarmendu nahi dut: iritsi garen tokira ez gara iritsi Foru Aldundiaren merezimendu hutsez, ezta gutxiagorik ere; askoren ahaleginari esker iritsi gara hona; alde batetik, talde politiko guztiei esker, eskuzabal eta zintzo jokatu dutelako, eta, bestetik, parte hartu duten elkarteetan, herritarren, unibertsitateen eta adituen jarrera aktiboari esker. Haien, zuen eta gu guztion meritua da Gipuzkoak, gaur, herritarren partaidetzarako arau zehatz bat izatea.

Nabarmendu nahi nuke gure jardueraren ikuspegi estrategiko eta etorkizuneko, arrakasta handiz amaitu den G+20 hausnarketa prozesuaren bitartez.

### **3. TESTUINGURU EKONOMIKOA**

Dagoeneko bi urte dira krisi ekonomiko latz batean murgilduta gaudela, historia garaikidean ezagutu dugun krisirik gogorrenetako batean.

Seguru asko nahia eta errealitatea nahastuz, herrialde guztiek aurreikusi zuten 2010eko lehen sei hilekoan abiaraziko zela ostera mundu ekonomia nagusien hazkundera, baina ez da hala izan. Hainbat arrazoik eragotzi dute halakorik gertatzea.

Uztailean zehar atzeraldi edo errezesioaren mamua uxatzen joan da, baina gorabeherak gorabehera, gehienen ustea da herrialde askotan hazkunde ekonomikoa atzeratu egingo dela.

Euskal Autonomia Erkidegoko bigarren hiruhileko kontu ekonomikoen adierazleei begiratuz gero, ikusten dugu barne produktu gordinak urte-arteko hazkunde positiboa izan duela lehen aldiz, sei hiruhilekoan beherakada izan ondoren. Igoera % 0,5 izan da 2009ko bigarren hiruhilekoarekiko.

Urteko bigarren sei hilekoaren datuen eboluzioari begiratuta, ikusten dugu industria alorrean eta zerbitzuetan hobekuntza orokorra izan dela aurreko urtearekin alderatuz gero; baina hazkunde hori apala da, joan den urtean huraxe izan baitzen sei hilekorik txarrena, zikloaren punturik kritikoena.

Euskadikoarekin alderatuz gero, Gipuzkoako eboluzio ekonomikoak ibilbide apalagoa eta denboran atzeratua izan du sei hilekoan: urte-arteko hazkundera % 0,2 izan da, Euskadiko % 0,5 izan denean.

Okupazioari eta enpleguari dagokienez, hiruhilekoaren amaieran okupazioa apur bat murriztu da, eta langabeziaren zenbakiak azken abenduan izandakoen antzekoak dira.

Urteko industria jarduera ez da mugitu ekoizpen zenbakietan, eta kanpo merkataritza gutxi hazi da.

Urtarril-uztail aldiko industria ekoizpena -% 0,8 gutxitu da Gipuzkoan 2009ko aldi berarekin alderatuta; Euskadin, berriz, % 1,6 handitu da.

Sei hilekoan esportazioak % 5 hazi dira, lehen hiruhilekoan izandako % 3,4 murrizpenaren aurrean. Ekipamendu ondasunek pisu handia dute Gipuzkoako esportazioetan, eta hori da Gipuzkoaren esportazio ratioen errekonferentzia mantsoa izatearen arrazoia.

Gipuzkoako inportazioak % 22,9 igo dira ekaina arte. Zenbaki horiek oso antzekoak dira Euskadin, eta erakuts dezakete jarduera handiagoko ziklo bat etorriko dela urteko bigarren sei hilekotik aurrera. Honek baikor izatera garamatza.

Beste lurralde batzuekin alderatuz gero, Gipuzkoako langabezia tasa herritar aktiboen % 7,6 da, Eustaten arabera, urteko bigarren

hiruhilekoan; Euskadin, berriz % 10,4 da, eta Espainian, % 20,1. Euroaren zonaldean, % 10,0.

Esan daiteke enplegu eskatzaileen igoera egonkortu egin dela; hala ere, 38.700 langabe kopurua handia da, eta errealitate hori gure ekintzen lehentasuna izango da datorren urtean ere.

Lehen sei hilekoan 383 enplegu-erregulazioko espediente onartu dira. Ondorioz, 380 lan kontratu azkendu dira, eta 8.500 kontratu eten. Iazko aldi berearekin alderatuta, kopuru horiek % 40ko murrizketa adierazten dute, etendako kontatuei dagokienez. Datuek erakusten dute normaltasuna berreskuratzeko urrats handia egin dela ekoizpen prozesuetan, eskarrietan eta enpresen jardueran, eta atzematen da enpresen ekoizpen kapazitatearen zati handiagoa erabiltzen ari direla. Erregulazio espedienteen murrizketa nabarmena izan da apiriletik aurrera.

Zerga bilketa % 10,5 igo da uztailleko datu metatuetan. Hazkunde txikixeagoa da Euskadikoa baino, non % 14,9 izan baita, eta Estatuan baino, non % 13,3 izan baita.

Adierazleek erakusten dute bigarren hiruhilekoan garapenak, nahiz eta positiboa izan den, ez duela erakusten Gipuzkoan errekerazio sendorik eman denik, eta kontuan izaten badugu maiatzeko eta ekaineko aurreikuspenak ez direla bete, esan dezakegu errekerazioa hasi dela, baina, zalantzarik gabe, nahi baino mantsoagoa izango dela.

Hurrengo urteko foru aurrekontuetarako oinarri den eszenatoki makroekonomikoak dio euskal Barne Produktu Gordina % 1,8 haziko dela 2011n. Aurreikuspen hori arrazoizkoa da baldin eta gertatzen badira baldintza eta egoera jakin batzuk, hau da, urteko bigarren hiruhilekoan gertatu den hazkundera baieztatzen bada.

Gure ekonomiaren gisakoak, ekonomia eta ekoizpen egituragatik, modu iraunkor batez errekeratatzeko giltzarri izango da sistemako ekonomia nagusien hazkunde iraunkorra gertatzea, hau da, Estatu Batuen, Alemaniaren eta Europako herrialde motorren ekonomiak hazkunde iraunkorrean sartzea.

## **Aurrekontu politika**

Gipuzkoako aurrekontuak dira gure tresna nagusia Aldundiaren politika publikoak gauzatzeko, gure sare ekonomikoak aberastasuna sortzen eta banatzen jarraitu dezan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2010ean 904 milioi euroko aurrekontu propioa izan du bere kudeaketa lanetarako. Zerga bilketaren beheratzea konpentsatzeko, 150 milioi euroko zorra hartu dugu. Gure aurrekontu propioak 347 milioi euro ipini ditu inbertsioetarako. Gastu arrunta % 11,72 murriztu dugu.

Datorren urterako aurrekontua eratzeko irizpideei dagokienez, ezinbestekoa da aurrekontu diziplina zorrozki kontrolatzea, eta finantza kaudimena nahiz sendotasuna bermatzea, krisiaren eragina sakona den arren.

Gure gastu politika krisiaren egoerari aurre egitera orientaturik egongo da, hazkundeari eta oreka ekonomikoari lehentasuna emanik, gastu bideragarri baten irizpidearen argitan. Gastu sozialei aurre egin behar diegu, oreka iraunkor bati eutsiz, baina, aldi berean, ezinbestekoa da inbertsio ekoizlerako gure konpromisoari ere eustea.

Gure asmoa da krisiaren aurkako plan berri bat egitea, dinamismo ekonomikoa eta soziala sustatu eta laguntzeko helburuaz.

Kontu publikoen konfigurazioari gagozkiolarik, datorren urterako espero dugu zerga bilketa hobea izatea 2010koa baino, nahiz eta oraindik ez dugun berreskuratuko krisiaren aurreko egoera.

## **Zerga politika**

Zerga politikaren ikuspuntutik, hiru irizpide nagusi izan ditugu gogoan 2010eko ekitaldian: lehenik, inbertsiorako pizgarriak; bigarrenik, familiak babestu eta laguntzeko neurriak; eta, hirugarrenik, enpresaren laguntza.

Familiei lagundu eta ekonomia berpizteko kenkariak hauek izan dira: etxebizitza-kontua, 6 milioi euroekin; ohiko etxebizitzaren inbertsioa, 26 milioi euroekin; seme-alaben kenkariak, 90 milioi euroekin; eta desgaitasun edo mendekotasun kenkariak, 40 milioi euroekin.

Enpresen aldeko neurri zehatzak hauek izan dira:

Alde batetik, kenkariak zabaltzeko ditugu: enplegurako, 20 milioi euroekin; ikerketa eta garapenerako, 50 milioi euroekin; eta berrikuntza, 12 milioi euroekin.

Beste aldetik, administrazio tramiteak arindu egin ditugu: BEZaren itzulketak hilerok egin ditugu; gerorapenen interes tipoa murriztu

egin ditugu; abalak eman ditugu, 1,7 milioi eurekin; eta gerorapenak onartu ditugu, 163 milioi eurekin.

Zerga bilketaren ikuspuntutik, une honetan eskura ditugun datuen arabera, Zerga Itunduen bilketa gordina, 2010eko abuztura bitarte, 3.085 milioitara iritsi da, 2009an data horretan bertan 3.050 milioi euro izan zituen bitartean. Horrek esan nahi du % 1,2 igo dela.

Krisi ekonomikoaren astindu sakona, batik bat 2008ko laugarren hiruhilekoan gordintasun osoz ageri zena, bultzagarri indartsu bat izan zen zerga alorren bi erabaki hartzeko, Ekonomia Itunak ematen dizkigun eskumenen babesean:

Alde batetik, premiazkotzat eta lehentasunezkotzat jo genuen enpresei tresnak ematea, jarduera eten ez zezaten, eta enplegua ziurtatu zezaten, batez ere industriaren sektorean, goizetik arratsera aurkitu baitzituen, lehenik, zailtasun ikaragarriak bezeroen zorrak eskuratzeko; gero, banketxeen finantzaketa iturria itxita gordailuko gorabeherak berdindu ahal izateko; eta, gainera, berehalakoen eskaerak goitik behera erorita.

Esparru honetan garaiz jardutea garrantzizkoa izan zen, enpresen jarduerari eta enpleguari eusteko laguntza eraginkorrak eman baikenituen, hiruhilabeteko kritiko batean, enpresek finantza lehorteari aurre egiteko aukera izan zuten, Eusko Jaurlaritzak eta Kreditu Ofizialeko Institutuak bermatutako kredituak eskuratzeko laguntza iturriak osteraz ezarri ziren arte.

Aurrekoarekin batera, berehala zerga neurri eta erabaki multzo bat ezarri genuen, 2008ko zerga ekitaldiaren atzera-eraginez, gainera, Sozietateen gaineko Zergaren eta PFEZeko enpresarien kuotaren kenkariak aldatuz, enpresa eta ekonomia sareak biziberritzeko asmoz, enpresa berrikuntza eta ukiezinen inbertsioa lagunduz, gure enpresak lehiakorragoak izan zitezten.

Azken hilabete hauetan eman ditugun aurrekontu eta zerga erabakien multzo horren bitartez, helburu garbi bat izan dugu begi bistan: Gipuzkoako eragile ekonomikoei eta sozialei behar duten babesa eta segurtasuna ematea, egoera benetan zail honetan.

Neurri guzti hauen ondorioz, Gipuzkoak etorkizun sendoagoa eta lehiakorragoa du, ez bakarrik gaur, baizik, batez ere, etorkizunean ere bai, abiada ekonomikoa nabaritzen hasten denean.

#### **4. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KUDEAKETA**

Jarraian, Foru Aldundiak egindako kudeaketaren alderdi esanguratsuenak azalduko dizkizuet.

Laburpen hau hasi nahi nuke Foru Aldundiaren, erakundearen jardunbidea aztertuta. Foru administrazioaren alorrean bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen foru dekretua onartu da.

Horrela, bada, zerbitzu publikoetan hasi dira ezartzen bitarteko elektronikoko horiek, eta jada erabil daitezke garrantzitsuak diren hainbat jardueretarako, hala nola, zerga aitordenak egiteko, diru laguntzak eskatzeko, ziurtagiriak emateko, kontsultak, kexak eta iradokizunak egiteko eta zenbait erroldatan izena emateko.

Urriaren 29tik aurrera, herritarrek bulego birtualaren bidez eduki ahal izango dituzte harremanak Aldundiarekin.

Gipuzkoaz kanpoko erakunde harremanen esparruan, azpimarratu nahi nuke mugaz gaindiko lankidetzak. Gipuzkoako Foru Aldundia lanean ari da, aspaldidanik, Euskal Eurohiriaren garapenaren alde, mugaz gaindiko agentziaren bitartez, agentzia hori zabalduaz, Donostiako Udala eta Communauté de Communes Sud Pays Basque bertan sarturik; era horretan, Euskal Eurohiriaren barne hartzen diren lurralde guztien jarraitasuna lortzen dugu.

#### **Lurraldearen oreka**

Lurraldearen oreka izan da agintaldi honetan gure lehentasunezko helburuetako bat. Gipuzkoako lurraldearen oreka eskualdeetan oinarritzen da. Beste herrialde batzuetan hiriburuak baliabide gehienak bereganatzen dituen bitartean, Gipuzkoaren kasuan ez da hala gertatzen.

Aitortu beharra dago eskualde eta herri batzuetan badagoela halako urruntasun sentipen bat. Baina azpimarratu beharra dago Foru Aldundiak ahalegin handia egin duela bide horretan legealdi hasieratik.

Zentzurik ez du eztabaida horretaz gogoratzea, soil-soilik, hauteskundeak hurbil direnean; izan ere, bide horretatik demagogia besterik ez da egiten, eta herritarren artean nahasmendua sortzen da.

Gure Kudeaketa Planak hiru lerro estrategiko ezarri zituen lurralde oreka lortzeko: mugikortasuna, herriak eta eskualdeak garatzea, eta kultura garapenaren eragileztat hartzea.

Mugikortasunaren ikuspegitik, gure ahalegin guztiak bideratu ditugu errepide gaineko garraio publikoa hobetzera, zerbitzuak hobetuz eta modernizatuz. Batez beste, 2010ean 12 milioi euroko inbertsioa egin dugu.

Urtea amaitu aurretik, beste garrantzizko proiektu gehiago gauzatu dira, hala nola taxiak txartel bakarrean sartzeari, Renfe ere sisteman sartzeari, eta birkarga birtualak Internet bidez eta kutxazainetan.

Zifrek dena esaten dute. 2008an hasi eta 2010eko apirila bitarte, 34.000 txarteletatik 170.000ra pasa gara. Hazkundera % 500 da.

Aurrera goaz bidegorriak sortzeko prozesuan. Aldundiaren eta herrien sarean guztira 423 km izango dira, horietatik 295 Aldundiaren sarean. Gaur-gaurkoz, kopuru horren heren bat zabaldu dago.

Dagoeneko guztiok dakizuen moduan, legealdi honetan lurralde orekaren alde eginiko ekimenik garrantzitsuenetako bat LANDAGIPUZKOA 32 egitasmoa da.

Landagipuzkoa 32 programaren barruan honako proiektuak jarri dira martxan 1000 biztanle azpiko herrietan:

- Ura eta baserri bideak konpontzeko laguntza programa: 52 proiektu onartu dira 3,1 milioi eurotako laguntza izan dutelarik.
- Bizi kalitateari lotuta dauden balioanitzeko azpiegiturak egiteko programan, orain arte, 8,7 milioi eurotako diru laguntzarekin 30 proiektu onartu dira; horietatik 8 proiektu bukatuta daude eta 22 proiektuen obrak hasita.

Lurralde orekaren beste zutabe garrantzitsuetako bat, elementu bateratzaile gisa, euskararen eta euskal kulturaren aldekoa da. Zalantzarik gabe, hurrengo urteetan jarraipena eman beharreko egitasmoa da.

Euskararen alorrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2 milioi euro xedatu ditu 2010ean euskararen erabilera soziala hedatzeko proiektu eta egitasmoen alde. Krisi ekonomikoa dela eta, elkarteek izan dituzten jaitsiera mingarria gertatu da gu guztiontzat, eta bereziki niretzat.

Azken urte honetan martxan jarritako proiektu ezberdinak indartzen joan gara. Adibidez Mintzola edo Ipuomamua.

Gipuzkoako Foru Aldunditik UDAL<>EKIN programa bideratu da euskararen normalkuntza esparruan Gipuzkoako udal teknikariek elkarlana bideratzeko asmoz.

Kulturaren oinarrian dagoen beste elementu bat geure ondarea da. Urtez urte lan handia egiten ari gara gure ondarea babesteko. Adibidez, Sasiola, Jaizkibel Draga, eta abar.

Behar bada gauzarik azpimarragarriena zera da. Gordailuaren eraikuntza martxan jarri dugula eta Gordailuak Gipuzkoako ondare eta museoen indartze eta antolakuntzan behar duen tokia izan dezan negozio plana garatu dugula.

Museoen arloan antolakuntza plana garatu da: Plan honen bidez herrialdeko hainbat zentroyen arteko elkarlana sustatzen ari gara.

Lazkaoko Beneditarren eraikuntza berria burutu da, eta funtsen kontserbazio eta etorkizuneko baldintzak adostu eta landu dira. Laster martxan ikusteko modua izango dugu.

Itsas ondarearen berreskuratzeari bultzada berezia eman zaio, Ondartxoko Ontzigunea martxan jarritz, Albaola elkartearekin elkarlanaren bidez eta Untzi Museoaren lanarekin jarraituz.

Baina, ondarea babesteaz gain, kultur sormenaren alorrean eta hedapenean lan garrantzitsu bat garatzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundian: formazioaren alorrean, ikerkuntzaren alorrean, hedapenaren eta sentsibilizazioaren alorrean, kultur ekipamenduak finantzatzuz, eta abar.

Baina gaurkoan bereziki bi proiektu garrantzitsu aipatu nahi nituzke:

Alde batetik, Tabakalera. Martxoan Gipuzkoako Foru Aldundiak Tabakaleraren proiektuari bultzada eman zion eduki aldetik. Bizi dugun egoera ekonomikoak Tabakalera egungo baldintzetara egokitzea eskatzen du. Urte amaierarako bukatuta egongo da hausnarketa prozesua. Eta ikus-entzunezko sorrera zentroa garatzen hasiko gara. Hau izango da Tabakalera proiektuaren bihotza.

Tabakaleraren inguruan eztabaida sortu da aurten. Ez da izan bakarrik egoera ekonomikoak sortutako eztabaida; proiektuaren nondik norakoaz ere sakon aritu gara. Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat Tabakalera proiektu estrategikoa da; Gipuzkoarentzat, euskal kulturarentzat eta kultur eduki propioak sortu nahi dituen herri batentzat.

Arazo ekonomikoak arazo, orain artean bezala aurrera egingo dugu. Horretarako, beharrezkoak diren egokitzapenak egingo ditugu baina ez dugu atzera egingo.

Bestalde, Gipuzkoa 2.0 proiektua dugu. Gipuzkoa 2.0 programaren bitartez jarrera aldaketa bat bultzatzen ari da Aldundia. Proiektu honen barruan, Kutxa eta Aranzadi zientzia elkartearen argazki funtsak GureGipuzkoan kokatzen hasi dira.

Kulturaren atal hau bukatu nahi nuke Europako kultur hiriburutzaren aipamena eginez. Donostia gertuago dago Europako kultur hiriburua izateko 2016an, eta gipuzkoar guztiok lortutako horretaz harro egoteko arrazoiak ditugu.

Badago proiektua, badago lan taldea, eta badago babesia.

## **Gipuzkoako ongizatea**

Gipuzkoako Foru Aldundiak legealdian zehar duen erronkarik garrantzitsuenetakoa gipuzkoarren ongizatea da. Gizarte politiken alorrean esfortzu handia egiten ari gara; legealdian zehar aurrekontua asko igo dugu eta krisi ekonomikoa iritsi denean mantendu egin dugu. Gizarte Politiken alorrean eginiko ibilbideaz bi hitz egingo ditut.

Gizarte Zerbitzuen mapari dagokionean, une honetan, maparen inplementazioaren erdiko ebaluaketa gauzatzen ari gara. Epe laburrean espero dugu emaitzak izatea.

Legealdi honetan, Mendekotasun Lege berria indarrean sartu zenetik, esan genezake mendekotasuna duten pertsona guztiak jada balorazioa egin dutela, eta momentu honetan egiten diren balorazioak gehienbat errebisioak direla edo mendekotasun egoeran sartu berri diren pertsonen dagozkienak.

Aipamen berezia egin nahiko nuke mendekotasun Legearen Prestazio ekonomikoen inguruan: gaur egun, hileroko 9.300 pertsona baino gehiago ari dira jasotzen Mendekotasun Legearen diru laguntzak Gipuzkoan, hau da, ehun herritarretik 1,3k jasotzen ditu. Gipuzkoak, eta Euskadik oro har, Estatuan estaldura maila handiena daukate. Gogoratu beharra dago laguntza horiek orain bi urte ez zirela existitzen eta harrez gero 14.000 pertsona desberdinek jaso dutela uneren batean laguntza.

Adinekoentzat Lazkao, Zumarraga, Zumaia eta Aretxabaletan egoitza berriak ireki dira, eta irekitzear dago beste bat Tolosan. Eta handitu egin ditugu Legazpi, Azpeitia, Mutriku, Beasain, Segura eta

Andoingoak, baita Arrasate eta Errenteriakoa ere. Gaur egun Gipuzkoan 5.400 egoitza plaza ditugu guztira, eta % 85a Aldundiaren sare publikoan daude, hots, kontzertatuak daude. Eguneko zentroetan, 7 zentro berri ireki ditugu eta 4 berri ditugu.

Aldundiaren ardura nagusienetakoa adingabeen babes da. Fenomeno honek presio ugari sortzen du sarritan bai teknikari eta bai arduradun politikoen artean. Hala ere, ez dugu ahaztu behar babes sistema haur, nerabe eta gazte guztiei dagoela zuzendua. Zentzu honetan, azpimarratu beharra dago urtean 1.500 pertsonak jasotzen dutela era bateko edo besteko babes edo laguntza, eta horietatik urte amaieran 116 bakarrik zirela kanpotarrak.

Bestalde, krisi egoera honetan gure babes sistemaren garrantzia azpimarratu nahi nuke, gutxieneko diru sarrerak bermatzeko; oinarritzko errentak 10.007 familia unitate babesten ditu gaur egun eskubidedun gisa (iaz baino 3000 gehiago), eta onuradunak kontuan hartzen baditugu 16.887 (iaz baino ia 5000 gehiago).

Honaino ibilbidearen berri. Gizarte Politiketean dagoen erronkarik handiena bere eramangarritasuna bermatzea da. Geroz eta adineko jende gehiago dago eta geroz eta denbora gehiago bizi gara. Neurri batzuk hartzen ez baldin baditugu etorkizunean arazoak izango ditugu. Sistemaren parte hartzen duten erakunde guztien arteko lankidetzan erabaki beharra dago finantzaketa sistema. Inork ez du irtenbide mirakuluzkorik. Baina gaia ez dago atzeratzerik eta mahai gainean jarri behar da triangelua: diru publikoaren iturriaren nondik norakoa, zerbitzuaren izaera eta onuradunak zer nolako partehartzea behar duen etorkizunean. Gai honi heltzea ez da erraza baina egin beharrekoa da; eta erakunde guztien artean egin behar da.

Une honetan, eguneroko kudeaketarekin zerikusia duten gaien artean lehentasuna du erresidentzietako hitzarmena ondo ixteak. Aldundiak ahalegin guztia egingo du bi aldeak ahalik eta azkarren ados jarri daitezen. Adostasun horrek azkenean zerbitzuaren hobekuntza suposatuko du.

Bestalde, aztertzen ari gara egun udalen esku dauden erresidentzien transferentzia zein eredu bitarteko garatu behar dugun. EUDELekin elkarrizketan jarraitzen dugu aldaketa hori ahalik eta modurik bideragarrienean egiteko.

Ongizatearen eta gizarte elkartasunaren esparruan, nabarmendu nahi nuke lankidetzan, giza eskubideetan eta berdintasunean egiten ari garen lana.

Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna etika eta justizia kontu bat da, gizarte aurreratu eta moderno gisa ematen dugun neurriaren adierazlea. Ez dago gizarte demokratikorik, ez dago ongizaterik, emakumezkoak eta gizonezkoak berdinkidetzat jo ezean.

## **Azpiegitura estrategikoak**

Ekonomia global batean, lurraldeek lehia egiten dute elkarren artean, herritarrek ingurumen lehiakor bat izan dezaten, aberastasuna eta garapena sortzeko aukera izan dezaten; horretan, azpiegiturek erabateko garrantzia dute.

Azken urte honetan emandako aurrera pausuek iraultza bat ekarri dute Gipuzkoako Errepide sareari dagokionean.

Inongo zalantzarik gabe Donostiako bigarren ingurabidea izan da iraultza horren adierazgarri argiena. Ekainaren 25ean irekitako errepide berri honek bere helburua ondo baino hobeto betetzea lortu du. Hasiera hasieratik gainera. Donostiako ingurabide zaharraren trafiko erdia bere gain hartu du.

Udak erakutsi digu ondo baino hobeto gauzak Gipuzkoan aldatzen ari direla, AP-8 eta AP-1 errepideek osatzen duten sistema berriak izugarritzko arrakasta izan du Gipuzkoa zeharkatzen dutenen artean. Eta hori, ez da ahaztu behar, ekarpen garrantzitsua dela errepide sarea mantentzeko.

Uda amaieran, abuztuaren 30ean, beste iraultza bat bizi izan genuen. Urumeako Autobidea Donostiako erdialdera sartu zen Zorroagako tuneletik. Autobide berri hau aurrera doa etengabe, datorren urtearen hasieran Andoaingo saihebidia irekiko da eta Hernaniko saihebidearen bikoizketa obrak urte honetan bertan hasiko dira. Beraz, Andoaindik Donostiara bitartean N-1 errepideak alternatiba osoa izango du.

Ahalmen handiko errepideekin amaitzeko, Urretxu-Bergara errepidearekin ere aurrera goaz, hurrengo fasea lizitazioan daukagu eta aurten hasiko dira hor ere Gipuzkoako biribilgunea ixtea lortuko duten obrak.

Une honetan, garrantzitsua errepide sarearen kudeaketan asmatzea da. Batzar Nagusiek onartutakoaren bidetik, Europar Batasuneko 2006ko Direktiba Gipuzkoan egokitzeke Foru Araua prestatuta daukagu. Prozedura jadanik abian da. Horretan, 3,5 tonatik gorako

ibilgailuen kasuan Gipuzkoako sare transeuropeoan ordaindu beharreko bidesariak ezartzeko irizpideak jasotzen dira.

Arau orokorra da beraz, gerora Etxegaraten bidesaria jartzeko markoa definitzen duena. Gure asmoa litzateke 2012tik aurrera Etxegaraten bidesariak errealitate izatea. Hori da gure egutegia. Ezin dugu ahaztu Gipuzkoan bidesarien gaiak trafiko erregulatzaileria duela batez ere. Finantzaketa iturri izatearena, Etxegarateko kasuan, ez da helburu nagusia.

Gipuzkoako Foru Aldundia, gogotik aritu da bultzatzen Pasaialdea biziberritzeko egitasmo eta ekimen nagusia.

Pasaiaiko Portuko Plan Berezia onartuta, Estatuko Portuen azken txostenaren zain, eta Donostialdea-Bidasoa Beheko Lurraldearen Zatik Planaren hasierako onarpena eginik, urrats garrantzizkoak egin ditugu, hirigintza dokumentuetan jasotzen baitira, azkenean, eskualde horren etorkizuneko definizioa, bertan baitaude etorkizuneko kanpoko portua, jarduera logistikoko guneak eta Lezoko salgaientzako terminala. Jaizkibelgo korridorea era egokian ordenatzeko bidea ematen du, Gipuzkoako lehentasunak ezarriz.

Gipuzkoa Aurrera-ren barruan eta gainerako erakundeekin partekatutako lanaren bitartez, Pasaialdea Biziberritzeko Masterplana egin izanak lanabes egokia emango digu Pasaiaiko ingurune urbanoa berreskuratzen jarraitzeko.

Epe labur eta erdira, lehentasun-lehentasunezkoa da guretzat Pasaialdeko badia ingurunea biziberritzea. Horregatik, atzeraezina dela uste dugulako, irmo exijitzen dugu Herrera ipar eta mendebaldean lurzorua desafektatzea eta saltzea.

Kanpo portuaren eraikuntzarekin konpromiso irmoa dugu, baina irmotasun berberaz diogu badia biziberritzean ezin dugula luzamendutan ibili. Ez dugu onartuko proposa dezaten lurrak ez desafektatzea kanpo portua eraikitzen hasi arte. Pasaitarrek eta inguruneko herritarrek ezin dute itxaroten jarraitu.

Interes orokorreko portuetan eskumenik ez izan arren kanpo portuaren eraikuntzarekin argi eta garbi (aurrekontuarekin) konprometiturik dagoen erakunde bakarra da Gipuzkoako Aldundia, sarrera-irteerako bideak eraikitzeko proiektua gure gain hartuta baitauekagu.

Garai da, beraz, gainerako erakundeek ere konpromiso irmoak har ditzaten, nork bere eskumenen arabera. Gu ari gara hartutako konpromisoak betetzen, baina portuarekiko eskumena Estatuarena da

berez, eta bada ordua gehiago inplikatu dadin, zalantzarik eta atzerapenik sortu gabe.

Legealdi hau giltzarria izan da, funtsezko zerbitzua den hondakinen gaiari soluzioa emateko.

Aldundiak argi eta garbi egin du erreziklajearen aldeko hautua. Hori errealitatea da eta datuek hala diote: Gipuzkoa lurralde aitzindaria da hondakinen bilketa selektiboan, % 40 ingurura iritsi baikara dagoeneko.

8 milioi luzeko inbertsioa egin dugu "garbiguneak" eraikitzeke, etxeko olio erabiliaren bilketa selektiborako eta gai organikoen aparteko bilketarako, bosgarren edukiontzia bitartez. Horretan ere lidergo partekatuan ari gara, lurraldeko mankomunitate guztiekin bat: mankomunitateak dira, Aldundiarekin batera, Hiri Hondakinen Kontsortzioa osatzen dutenak eta berak dira zabor bilketaren eskumena dutenak.

Eta, gaikako bilketa selektiboarekin batera, amaierako tratamenduaren gai bideratu da. Hiri Hondakinen Kontsortzioa eta GHK SA sozietate publikoa eratu ditugu. Foru Arauan aurreikusten ziren azpiegiturak abian dira. Sarbidea egiten hasita dago. Plataformaren obrak esleituta daude. Aurki, aurretratamendua eta erraustegia esleituak izango dira. Beraz, amaitzear da zabortegien aroa.

Lapatx, Urteta eta Sasietako zabortegiak ere, San Markosekoarekin gertatu den bezalaxe: itxi egingo dira tratamendu planta berriak martxan jarri orduko, hortxe 2013an.

Legealdi gogorra bezain emankorra izaten ari da: Zero isurketa San Markosen 2008ko urrian; Hondakinen Foru Araua onartzea Batzar Nagusietan, 2008ko abenduaren 23an; Hondakinen Lurralde Plan Sektoriala onartzea, Diputatuen Kontseiluan, 2009an; tratamendu plantaren proiektua egitea, Ingurumen Baimena eskuratzea, eta abar. Horiek denak egin dira denbora gutxian.

Eta badugu zereginik, oraindik ere, zalantzarik gabe. Baina, legealdi honetan, behin betiko irtenbidea eman zaio Gipuzkoako hiri hondakinen arazoari.

Obra hidraulikoei dagokienez, ur horniduraren ikuspuntutik, esan genezake gipuzkoarren % 95ek duela ur hornidura egokia kantitatez eta kalitatez.

Hau errealitate bat da gaur jadanik, lanean jarri berriak diren Ibiurko urtegiari eta tratalekuari esker, dagoeneko Tolosaldea beratatik ari baita urez hornitzen.

## **Gipuzkoaren lehiakortasuna**

Testuinguru ekonomikoa aztertu dudanean, aipatu dut, nola ez, krisi ekonomikoa. Gainera, legealdi osoan zehar egin dugu apustu berrikuntza itsasteko gure produkzio eta enpresa sarean.

Honi gagozkiola, halabeharrez aipatu behar dut Foru Aldundiak abian jarri duen Krisiaren aurkako Plana.

Inbertsio publikoaren ikuspuntutik begiratuta, Krisiaren aurkako Planak 40 milioi euro jarri ditu, guztira 112 milioi eurokoak diren hiru herrilan nagusi eta estrategiko bizkortzeko. Hiru bide proiektu azkartu eta aurreratu dira horrela: Beasain-Bergara bide-ardatzean Urretxu-Antzuola zatia; Hernaniko saihesbidea bikoizteko eta lau karrileko bihurtzeko egitasmoa; Gomistegiko biribilgunean (Herrera-Pasaia) trafikoak bereizteko egitasmoa. Proiektuen aurreikuspenak bizkortu ditugu eta, horri esker, hiru obra horiek martxan egongo dira urte amaitzerako.

Lan munduan txertatzeko zailtasunak dituzten kolektiboentzako laguntzean, berriz, 14 milioi euroko partida gehigarri bat jaso du Krisiaren aurkako Planak, egoera zailean diren herritarrei laguntzeko. Horrela 5.000 pertsonaren formazioari eta enpleguari eusteko aukera izan dugu. Orobat, 175 kontratazio berri egin ahal izan dira, langabezia zeuden herritarren artean.

Baina, dena den, Krisiaren aurkako Planean atalik nabarmena enpresari zuzendua dago. Helburua da lurraldeko enpresen lehiakortasuna bultzatzea, Gipuzkoarentzat traktore diren proiektu garrantzitsuei babes eman. 200 etorkizun-proiektu baino gehiago ari dira lantzen eta garatzen enpresak; 11 milioi euroko ekarpen publikoari esker 106 berrikuntza-proiektu jarri dira abian, guztira 32 milioi euroko inbertsioarekin. Halaber, 181 gazte kualifikatu kontratatu dira proiektu berritzaileetan, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza (I+G+b) proiektuetan eta internazionalizazio proiektuetan ari dira buru-belarri.

42 hausnarketa-proiektu garatu dira, enpresaren lehiakortasuna aztergai. Gainera, beste 34 proiektu gehiago ari dira lantzen, Gipuzkoako enpresetan balore sozialak sustatzera zuzenduta. Gipuzkoako enpresen ekoizpen zentroak kanpoan jartzen lagundu dugu (Mexiko, Txina edo Australia) eta 27 produktu berri ere merkaturatzea bultzatu dugu (Iberoamerikan, Estatu Batuetan, Asian edo Ekialde Ertainean), baita merkatu oso berezietan ere, hala nola Kenya, Mali edo Jordania.

Azkenik, beste 10 milioi euro xedatu ditugu zientzia eta teknologiaren esparruko azpiegiturak egokitzeko edo eraikitzeko: besteak beste,

Mondragon Unibertsitatearen berrikuntza zentroa, Deustuko Unibertsitatearen berrikuntza zentroa, LORTEK eraikin berria Ordizian, TEKNIKER eraikin berria Eibarren, Donostia International Physics Center eta CIC-Nanogune.

Krisiaren aurkako Plana ongi taxutua egon da, ondo kudeatu dugu, partaidetza eragin du eta, batik bat, emaitza onak izan ditu: gure produkzio sarea babestu du eta lurraldearen lehiakortasuna sendotu du.

Aurrekontu egoera zaila den arren, Gipuzkoako Foru Aldundiak beste plan bat jarriko du abian 2011n, orain arte egindako urratsei jarraipena emango diena.

Baina krisiaren aurkako planetik haratago ere badoa berrikuntza eta lehiakortasuna gure eguneroko jardueran txeratzeko eta hedatzeko Aldunditik egin dugun hautua.

Izan ere, urteotan inbertsio handiak egin ditugu Inbertsioan eta Garapenean. 8 milioi euro urteko ohizko deialdietan, gehi krisiaren aurkako planeko dotazio berezia. Azken urteotan, Zientzia eta Teknologia azpiegiturretan 21 milioi eurotik gora inbertitu dugu.

Informazio teknologia berrien bitartez berrikuntza sustatzeko ere inbertsio garrantzitsua egin dugu, 495 proiektu lagunduz mikroenpresen esparruan, eta 22 proiektu IKT produktu berrietan.

Gure enpresak internazionalizatzea ere gogotik bultzatzen ari gara, produkzio eta merkatal zentroak kanpoan jartzen lagunduz, produktu berriak merkaturatzen lagunduz eta misio teknologikoak eta komertzialak kudeatuz.

Hau da Gipuzkoak une honetan aurrean duen demarik garrantzitsuena: Lurraldearen lehiakortasuna. Eta lehiakortasuna, hain zuzen ere, ezagutza sortuz eta ezagutza hori produktuetan aplikatuz hobetuko dugu, horretarako gai bagara aurreratuko dugu. Horregatik jokatzeko ari gara sendo TECNALIAREN egoitza behin betiko Gipuzkoan kokatu dadin.

Egiaz esaten dizuet: uste dut ez duela zentzurik egoitza txandaka aldatzen joatea. Edo Bizkaian edo Gipuzkoan jarri behar da, baina behin betiko. Edonola ere, zentro teknologikoen aldeko gure jarrera ez da amaitzen egoitzari buruzko eztabaidan.

Eta lurraldearen lehiakortasunari buruzko atala amaitu baino lehen, aipatu nahi nuke nekazaritza arloa; izan ere, nekazaritza ere egoera zaila

igarotzen ari da une hauetan. Arlo honetan ere berebiziko ahalegina egiten ari gara, nahiz eta badakigun gehiago ere behar dela.

Batzar Nagusietan Nekazaritzaren Etorkizuna Bermatzeko eraturako ponentzian parte hartu dugu aktiboki. Bertan, alderdi politiko guztiek adostu duten txostenak garbi azaltzen digu etorkizunaren erronkak zein diren eta, baita ere, administrazioaren papera zein izan beharko luken. Helburu horien lorpenaren arian, lehen sektorea egituratzen duten elkarteekin hitzarmenak berritu ditugu aurten. Hitzarmen hauek ezinbestekoak dira, elkarte hauek Nekazaritza eta Abeltzaintzaren bizkarrezurra direlako.

Nekazariei, beren inbertsioei aurre egiten laguntzeko, banketxe eta aurrezki kutxa ezberdinekin ere hitzarmenak sinatu ditugu, mailegu baldintzak hobetuz. Horretako gure diru laguntzen bermea erabiltzen dugularik.

## **Garapen iraunkorra**

Ingurumenaren esparruan ere, Gipuzkoako Foru Aldundia egitasmo garrantzitsuak gauzatzen ari da hainbat gaitan.

Energiaren alorrean iraunkortasuna ahalbidetzeko, foru eraikinen iraunkortasun energetikorako Plana egin dugu eta dagoeneko hainbat ekimen jarri ditugu abian. Une hauetan Lurraldeko Iraunkortasun Energetikoaren Plana prestatzen eta idazten ari gara.

Energia berrigarriak sustatzeko ekintzen artean, plaka fotoboltaikoekin esperientziak izaten ari gara Elgoibar, Oñati, Zarautz eta Zegamako eraikin publiko batzuetan, eta aurki abian jartzekoa da beste esperientzia berezi bat Ataunen, auto elektrikoekin.

Izadiaren babesaren alorrean ere hainbat ekimen ditugu abian. Adibidez, *Mendiz-mendi*, *Mendez-mende* ekimenarekin, mendien eta parke naturalen eginkizun publikoa sustatzen ari gara, naturari lotutako aisialdia bultzatuz.

Orobat, Gipuzkoako parke natural nagusietan harrera eta interpretazio zentroen sare garrantzitsu bat osatzen ari gara, Parketxeen Sarea. Azpiegitura horiek, izan ere, oso egokiak dira, erabilera publikoa bultzatzeaz eta bisitariei zerbitzua emateaz gainera, ingurumen heziketa gizartean hedatzeko.

Era berean, Gipuzkoako bidezidorren sarea sustatzen ari gara, gure lurraldea ezagutzeko eta gozatzeko beste era bat eskaintzearen. Sare honi hedadura zabalagoa emango zaio parke naturaletan. Une hauetan

sarearen erdia erabilgarri dugun arren, legealdiaren amaierarako bidezidorren % 80 prest edukitzea espero dugu.

## **Kirolak**

Kudeaketaren atal hau amaitu nahi nuke kirolari buruzko aipamen batzuk eginez. Kirolak, bere maila guztietan, bai afizionatuen mailan, bai profesionalen mailan, erakusten du herri baten garapen maila. Aldundiak zenbait programa ditu antolatuak esparru horretan. Kirol ekipamenduen barruan, 2010ean 4 milioi euro xedatu dira kirol ekipamenduak sortzeko, bai udalen bitartez, bai Gipuzkoako beste kirol eragile batzuen bitartez. Aurreikusita dugu 2011n, eremu horretan bertan, obrak esleituak izango ditugula batez beste 8 milioi euroren inguruan.

Halaber, etorkizuneko kirolarien aldeko programak ditugu, baita lehen mailako gure talde eta kirolarien aldekoak ere, hau da, kirol ikuskizunaren aldekoak. Baina, horrekin batera, gure ahaleginik handienak eskola kirolaren aldekoak dira.

Ez dut aipatu gabe utzi nahi «Hegalak zabalik» fundazioa eratua delarik, Donostiako Alderdi Ederren kirol egokiturako zentro bat zabalduko dela, goi mailako instalazio batean, eta beste lurralde askorentzat eredugarri izango dena.

## **5. EGOERA POLITIKOAREN DIAGNOSTIKOA**

### **Testuinguru berria bakea lortzeko**

Bukatzeko, errepasso bat egin nahiko nioke Euskadiko eta Gipuzkoako egoera politikoari. Euskal gizarte itxaropen-une batean dago. BBCK argitara eman zuen ETAREN komunikatua, atentaturik ez egiteko erabakiarekin, gauza positiboa da. Ez da nahikoa, ordea, ETAK euskal gizartearen aldarrikapena entzun behar baitu azkar baino lehen: bortizkeria behin betiko utzi, ordain politikorik gabe. Ez da zalantzarik, ETAK indarkeria eta estortsioa alde batera utzi behar ditu, eta hori ezin du atzeratu.

Dena dela, egoera hau aurrerapauso bat da behin betiko bake-testuinguru baterantz. Euskal gizarteak argi ikusten du hori; ez hala,

ordea, arduradun publiko eta politikoeak. Ez dira gauza bera atentatuak izatea eta atentatuak ez izatea.

Lehenik, atsedeen bat delako (ez osoa, egia) mehatxaturik bizi diren pertsonentzat y gizarte osoarentzat.

Bigarrenik, elkarrizketarako ate bat zabaltzen da: zer bide egin egungo egoeratik abiatuta behin betiko bakera.

Euskal gizarteak ez du gehiegi sinesten egoera honen amaiera etorriko denik, baina arduradun politikoei eskatzen digu eginahalak egitea bakea lortzeko.

Egoeraren irakurketa ezin da egin kontuan izan gabe zein den atentaturik gabeko egoeraren testuingurua. Testuinguru dinamiko bat da, bi mugimendu nagusirekin. Batetik, euskal gizarteak kontra egiten dio, aktiboki kondenatzen du ETA; eta, bestetik, Ezker Abertzaleak publikoko jakinarazten du bide demokratikoaren aldeko etorkizun-apustuari heldu nahi diola.

Egoera hau ez da ulertuko modu estatikoan erreparatzen bazaio, ez da ulertuko komunikatu jakin batek dioena bakarrik kontuan hartzen bada. Jarrera politiko hori, eskatzen duena indarkeria uztea halako ekitaldi bakar batean, elektoralista izango da, baina ez da eraginkorra. Une politiko honetan, gaitzetsi eta zerbait gehiago egin behar da; printzipioak zerrendatu baino askoz gehiago egin behar da. Jardun egin behar da, eta demokraziaren ahalmen guztia aktibatu, hartara konponbidea azkartzeko.

Egungo testuinguru politikoan, gauza nabarmena da Ezker Abertzaleak bakarka adierazi izana apustu egiten duela bide demokratiko hutsaren alde, horrela duen proiektu politikoa garatzeko. Apustu hori eztabaidatu egin dute, eta oinarriek onartu egin dute. Ezker Abertzaleak argiro esan dio ETArekin etorkizunean indarkeriak ez duela lekurik.

Nire iritziz, ETArekin indarkeriaren amaieraren inguruan gizartean eta politikan egiten den analisia edo irakurketa izango da indarkeriaren benetako amaiera baldintzatuko duena. ETArekin amaituko dela termino polizialean bakarrik hipotesi bat da (niretzat faltsua) dioena indarkeria terrorista amaitzen dela borroka polizial eraginkor batekin; ikuspuntu horretan, uste da borroka polizialak, ETArekin amaitu ez ezik, indarkeriak gizartean duen arnasarekin ere amaituko duela. Benetan, ez dut uste hori horrela denik. Are gehiago. Borroka poliziala bakarrik hartzen duen estrategiak, alde batera utzita elkarrizketa, benetan alde batera uzten ari da indarkeriarekin amaitzeko lanabes demokratiko oso garrantzitsu bat. Izan ere, gure historia berriaren une askotan gertatu dira elkarrizketak.

Zergatik da beharrezkoa, ba, elkarrizketa?

Elkarrizketak ahalbidetu dezake Ezker Abertzaleak erabakia hartzea behin betiko, eta sistema demokratikora sartzea; garaipen polizialak, berriz, bortizkeriarekin bukatuko luke, baina ez lioke utziko mundu horri demokraziara sartzen.

Nik ez daukat zalantzarik behar-beharrezkoa dela poliziaren lan eraginkor bat, baina ETaren amaiera ekarriko du indarkeria legitimatzen duen gizarte zati horren eraldaketak. Eta hori da Ezker Abertzalean gertatu den jauzi kualitatiboa.

Ez naiz ari negoziazio politikoen gainean; ez naiz esaten ari indarkeriaren amaierari, ordainean, prezio politikorik eman behar zaionik. Esaten ari naiz babes demokratikoa eman behar zaiola Ezker Abertzalea demokratizatzeke egiten ari den saioari.

Ezinezkoa da Ezker Abertzaleari eskatzea bide demokratikoaren alde egitea eta, aldi berean, galaraztea sistema demokratikoan sartzea; beharbada, baten batek uste du politikoki Ezker Abertzalea itotzea dela modu bakarra ETak behin betiko erabakia iragar dezan. Nire iritziz: Guztiz kontrakoa gertatzen da. Ezker Abertzaleak bere proiektua sistemaren barruan garatu ezinda, helburu politikoak indarkeriaz lor daitezkeela uste duen sektore minoritario hori demokraziara bideratzeko aukera atzeratu egiten da.

Edo.. aritmetika parlamentarioko kalkuluak egiten ari ote da inor, proiektu politiko jakin bat mantentzeko asmoz? Onartezina litzateke ikuspuntu demokratikotik. Ezker Abertzalea jokoz kanpo uztea, horrela euskal politikaren kontrola izateko, ez da kabitzen kultura politiko demokratikoan. Horregatik eskatzen dut berariaz, berriro ere, alderdien legea indargabetzea.

Espainiako Gobernu eta Eusko Jaurlaritza beren interesen arabera ari dira, eta ez herriaren interes orokorren arabera. Gaur, Eusko Jaurlaritzaren jardura etiko eta politikoa da nola defenditu alderdiaren interesa, ez interes orokorrak. Euskal gizarteak eskatzen duenaren aurka doaz, zehazki.

Pertsona talde batek deitutako manifestazioa, debekuak salatzeke eta edozein helburu politiko askatasunez aldeztu ahal izateko eskubidearen alde, erakusle argia da Partidu Sozialista eta Partidu Popularra zuzenbide estatua alderdikieriaz ari direla erabiltzen, gatazka eta ernegatze giro politiko bat sortuz.

Atzo jakin genuen, hedabide batzuen bitartez, lehendakariak alderdi politikoeekin elkarrizketak izango dituela ETaren amaieraz. Esplorazio horrek aukera eman behar lioke bere politika errotik aldatzeko, orain arte egoskortasunez eta hauteskunde irabaziei begira bakarrik egin baititu gauzak.

## **Bakea: biktimak eta adiskidetzea**

Hasierako tesi bat ezarri nahi dut Euskadiko bakeari eta adiskidetzeari buruz. Bakea euskal gizartearen dimentsio etikoa sakondu eta zabaldua dator. Ez da zalantzarik horretan ETaren aurkako borroka polizial beharrezkoak bere ekarpenak egin dituela, baina ETaren desagerpena eragingo du indarkeria elikatzen duen babes sozialik ezak. Babes sozialik gabe, ez da ETarik. Hori da euskal gizartean gertatu den benetako aurrerapena.

Euskal gizartea jabetu da indarkeria zer den, eta prozesu horrek, gizarteak indarkeriaren aurka izan duen jarduerarekin batera, aukera eman digu, orobat, kontzientzia izan dezagun zein beharrezkoa den biktima guztien mina gure egin dezagun, joera politikoak gorabehera.

Baina indarkeriarik gabeko egoera bat aukera bikaina da bakearen kulturaren alde eta adiskidetzearen alde lan egiteko.

Aukera horrek abiapuntua terrorismoaren biktiman izan behar du. Azpimarratu beharra dago biktimak direla gehiena sufritu dutenak: biktimak berak, biktimen senitartekoak eta biktimen ingurukoak. Beharrezkoa da bidegabekeria halakotzat aitortzea eta sortu den min atzeraezin hori leuntzeko gure laguntza osoa ematea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak jarrera garbi bat azaldu du historikoki terrorismoaren aurka, giza eskubide guztien alde. Jarrera hori jarduera askotan nabarmendu izan da, baina legealdi honetan bereziki, bakea eta terrorismoaren biktimen memoria bultzatzeko planaren bidez. Erakunde arteko lankidetzak handia izan da plan hori gauzatzeko, eta, horren ondorioz, biktimei aldeko zenbait jarduera burutzen dira, ikerketakoak eta kontzientziazio sozialekoak.

Nabarmendu nahi dut Kriminologiako Euskal Institutuarekin sinatutako hitzarmena, hartara biktimen eremuan ikerketak burutzeko, edota azaroaren 2an eta 3an aurreikusita dauden jardunaldiak, non gure elkarbizitzaren sistemaren etorkizunaren inguruan hausnartuko den.

## **Egungo egoera politikoa**

Egungo politika markatzen duen beste gai bat da: Eusko Jaurlaritzaren egungo politika, autonomia erkidegoko erakundeetan norabide aldaketa sendotzeko. Autonomia berreraikitzekeo prozesu bat burutzen ari dira, nabarmen erregresiboa.

Trantsizio demokratikoaren une historikoan, Gernikako Estatutua bilgune bat izan zen, haren inguruan bildu baitziren zenbait aktore politiko, zeinak legitimazio politikoaren subjektua partekatzen ez zuten. Baina onartzen zen oinarrizko arau hori paktu bat zela.

Alabaina, Estatutuak akordio eta jatorrizko paktu izaera aldatu du, lan egin delako haren garapenari galga jartzen. Are gehiago; Estatutuaren garapena erabili da unean uneko beharren arabera. Egungo Espainiaren izpiritu uniformatzaile hori kontraesanean dago benetako nazionalitate anistasunaren funtsa eta formarekin. Estatuak Kataluniako *estatut*-arekin erakutsi duen aldebakartasunak erakusten du noraino egin dugun atzera.

Enplegu politika aktiboen transferentzia egoera honen adibide ederra da. Legea betetzea horrela behartu beharrak, aurrekontuen negoziazioaren eskuetan jarrita, ongi erakusten du nola bihurtzen den, Estatuarentzat, legea merkantzia. Oinarrizko erakunde arau batek jasan dezakeen gauzarik txarrena da egoera politikoaren nondik norakoan arabera ibiltzea. Oreka galtzen du, batzeko duen gaitasuna.

Jakina, poztu besterik ezin naiz egin herrialde honentzat Eusko Alderdi Jartzaileak lortu duen transferentzia garrantzitsuarekin. Gure autogobernua handitzea da. Estatutuaren paktua, sortu zen balditzetan errespetatzea da; transferentzia horrek enplegua bultzatuko duten politika publikoak garatzeko baldintzak hobetzen ditu, gure herria lehiakor izateko baldintzak hobetzen ditu. Baina ez dira kontu berdina, halabeharrez egitea transferentzia edo benetan sinetsita egitea. Hori da Estatuari eta alderdi konstituzionalistei falta zaiena: sinestea herritar gehienek nahia errespetatzea guztiok aurrera egitea dela.

## **Normalizazio politikoaren etorkizuna**

Bakeaz hitz egitea ez da normalizazio politikoaz bakarrik hitz egitea. Batzuek normalizazio politikoaren desagertzea bada ere (aurrerapen handia da, ez da zalantzarik), Euskadin bada horren gaineratik arazo politiko bat. Arazo politikoak da ez direla onartzen, ez

Euskal Herria, ez Euskal herriak etorkizuna erabakitzeko duen eskubidea.

Arazo politikoa ukatzen da, baina ukatzeak ez du esan nahi desagertu egiten denik. Eta ez da desagertuko. Ezin da, ezta ere, errealitate bat eraiki hutsetik abiatuta eta erakundeen indarrez, egungo Eusko Jaurlaritzak nahi duten bezala.

Nire ustez, klima politiko berri bat eraikitzen hasi beharko genuke. Elkarrizketa ezarri, eta beste errealitate batzuk ulertzeko trabak ezabatu. Erronka zera da: lortzea proiektu guztiak legitimoak eta gauzagarriak izatea Euskadin, betiere printzipio demokratikoei begiratuta.

Uste dut bakea aukera bat era badela elkarrekin bizi dugun gunearen kalitate demokratikoan sakontzeko. Oso zaila da ibilbide hori egitea, onartzen ez bada euskal gizartea dela etorkizunari buruz hartzen diren erabaki guztien subjektu legitimoa. Euskaldunok nahi dugu Espainiako Estatuak onartzea badela euskal herri bat, subjektu politiko, eta nahi dugu onar dezan erabakitzeko eskubidea duela. Normalizazioa prozesu hori burutu eta orduan iritsiko da herri honetara.

Sinetsita nago egitateen egiek erakutsiko dutela Euskadik trantsizio politiko berri beti ekin behar zaiola, hartara erakunde arteko harremanek eta harreman politikoek marko berri bat izan dezaten.

Egungo une politikoa garrantzitsua da; garrantzitsua da bakea lortzeko; garrantzitsua da Euskadin normalizazio politikoak aurrera egin dezan; eta bereziki garrantzitsua da Gipuzkoaren etorkizun politikorako.

Normalizazio politikoaren ikuspuntutik, euskal aktore politiko eta instituzionalek ezin dugu utzi Estatuak mantentzea Euskadin ezegonkortasun politikoaren egoera hau. Alderdi Politikoen Legeak egonkortasunik eza eta normaltasun politikorik eza eragiten ditu.

Erreakzionatzeko garaia da, eta Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak gidatzen duten Estatu-estrategiari buelta emateko ere bai, estrategia horrek bizitza politikoa eta euskal erakunde sistema erabili egiten baititu, euskal gizartearen nahi politikoa bera ezabatzeko eta gure egitate bereizgarria lausotzeko. Ezin dugu onartu, eta ez dugu onartuko.

Aktore politiko eta sozial guztiok, inposaketa hori onartzeko prest ez gauden guztiok, erreakzionatu egin behar dugu, eta lan trinko bat burutu, lan partekatu eta demokratiko bat, hartara euskal erakundeak eror ez daitezen Estatuaren strategiaren eskuetan.

Gipuzkoa anitza da, baino gehienok bakearen alde gaude eta euskal gizartearen gehiengoak nahi duenaren alde. Estatuaren estrategian, helburuetako bat Gipuzkoa konkistatzea da. Beste urrats bat euskal identitatearekin amaitzeko. Baina ez dute lortuko. Gipuzkoar gehienek ez dutelako onartuko PSEk eta PP osatutako fronte bat. Gipuzkoak ez du onartuko ukazioa etorkizuna eraikitzeko.

Gaur egun, hori da alderik handiena. Batetik, kultura politiko zahar baten alde egiten dutenak daude: frontea, ukazioa eta inposaketa; bestetik, kultura politika berri baten alde gaudenak: askatasuna, erabakitze eskubidea eta toki partekatuen bilaketa, non guztiok esan eta garatu ditzakegun gure proiektuak: kultura politiko berri bat, gure nortasuna indartu egingo duena, gure lehiakortasuna sendotu egingo duena, giza garapen iraunkorra bultzatuko duena. Hori da Gipuzkoaren etorkizuna.

Agintaldi honetako politika orokorreko azken eztabaida hau amaitzera noa, agintaldiaren ezaugarriak laburbilduz: kudeaketa eraginkorra egin dugu; helburuak oso maila onean bete ditugu; lankidetzaren kultura ekarri dugu gobernantza sistemara; eta bakearen nahiz erabakitze eskubidearen alde egin dugu.

Mila esker.